

OPEN ESKOLA GIDAREN ZIRRIBORROA

EDUKIEN AURKIBIDEA

TESTUINGURUA ETA PROZESUA

1. Nola sortu da Open Eskola Gida?

- Sarrera
- Zer da Open Government?
- 4. konpromisoa - Open Eskola - Zer da OE?
- OE lantaldeak
- Open Eskola Gida sortzeko emandako urratsak

2. Zergatik eta zertarako nahiko nuke Open Eskola ezarri nire lurraldean edo udalerrian?

- Bat datorrelako hiri edo lurralde estrategiarekin
- Herritarrek parte hartzeko ekintzak eta zerbitzuak antolatzen dituelako
- Herritarrek parte hartzeko beharrei antzematen dielako

GIDAREN ZIRRIBORROA

3. Nola jar dezaket abian OE?

0 fasea. Open Eskola Gidaren zirriborria

1.fasea. Talde sustatzailea sortzea (osaera eta funtzioak)

2. fasea. Egitura eta baliabideak: OEn sar daitezkeen bertako esperientzien mapaketa eta ezinbesteko elementuen *check lista*.

3. fasea. Talde eragilea sortzea

4. fasea. Diseinatzea, jarraipen adierazleak eta Open Eskola abian jartzea

5. fasea. Ekintzen jarraipena eta azterketa egitea

6.fasea. 2020. urtearen amaiera: ondorioak eta hobetzeko gomendioak

1.- Nola sortu da Open Eskola Gida?

Sarrera

Open Eskola Herritarrentzako Eskola Irekia izeneko OGP Euskadi 2018-2020 Ekintza Planaren konpromisoarekin, eskola irekiko eredu egiaztatu bat garatu nahi da herritarrentzat, Euskadi osoko topaketa eta ikaskuntza eremu izan dadin. Helburua da herritar aktiboagoak sustatzea gai publikoetan eta administrazio ireki eta gardenagoa bultzatzea, kultura parte-hartzaile eta etengabe hobetzeko erantzukizun balioak partekatuz.

Xedea da herritarrentzako eskola irekiko eredu bat finkatzea, lurralde maila desberdinetan ezartzean erreferentzia gisa balio dezan.

Zehazki, Open Eskola eredu honetan oinarritzen da:

- Elkarlan publiko-pribatua: trebetasunak ikasteko espazio bat izatea, balio publikoa batera sortzeko lankidetzan aritzeko, herritarrak eta kudeaketa publikoko teknikariak eta politikariak bilduko dituen.
- Lankidetzarako, negoziatzaileentzako eta akordioetarako trebetasunak ikasteko metodoekin esperimintatzea.
- Gai publikoetan parte hartzeko ikaskuntza eta motibazioa, oinarritzat hartuz aplikazio praktikoa, "egiten ikastea" eta esperientzia berritzaileen ezagutza.
- Erabakiak hartzeko beharrezkoak diren trebetasunak eta jarrerak.
- Herritarren aktibazio kritikoa, balio publikoa sortzean lankidetzan aritzeko.
- Berrikuntza publikoarekiko konpromisoa, gobernu onaren bidez: osotasuna, gardentasuna, kontuak ematea eta lankidetzaren konstruktiboa.
- Erakundeen arteko inplikazioa jardunbide egokiak orokortzeko.

Zer da Open Government?

OGP (Open Government Partnership / Gobernu Irekiaren Aliantza) alde anitzeko ekimena da munduan, gobernuen konpromiso zehatzak bermatu nahi dituen, gardentasuna sustatzeko, herritarrak gaitzeko, ustelkeriaren aurka borrokatzeko eta gobernagarritasuna sendotzeko balio duten teknologia berriak aprobetxatzeko.

OGP itunaren kide izateko, herrialde partaideek Gobernu Irekiaren Adierazpena babestu behar dute eta herritarrei galdeketa eginez garatutako herrialdeko ekintza plana aurkeztu.

2018. urtearen hasieran, sareak aukera eskaini zuen munduko beste bost azpieskualde gobernu sartzeko. Aukera horren aurrean, Eusko Jaurlaritzak, hiru foru aldundiek eta hiru hiriburuek (Innobasqueren laguntzarekin) erabaki zuten indarrak eta dohainak batu eta hautagaitza bateratu bakar bat aurkeztea. Horrela, OGP Aliantzaren partaide izatea lortu zuten, eta proiektuari "OGP Euskadi" izena eman zioten (<http://www.ogp.euskadi.eus>).

Baldintzetako bat 2018-2020rako baterako ekintza plan bat egitea eta aurkeztea izan zen. Plan hori herritarrekin zehaztu behar zen; beraz, Talde Sustatzaileaz gain (7 administrazio sustatzaileak, Innobasqueren laguntzarekin), Foro Erregular bat ere sortu zen, erakunde sustatzaileetako 8 ordezkari eta gizarte zibileko 8 ordezkari osatutakoa. Parte hartze eta autohautaketa prozesu luze baten ondoren, Foro Erregularra eratu zen formalki, zeinaren eginkizun nagusia den Talde Sustatzaileak egiten dituen proposamenak baliozkotzea.

Planeko erakunde guztiek hartutako **5 konpromisoak** garatuko eta ezarriko dira (agintaldi planen bitartez kontuen berri ematea; Open data Euskadi eta linked open data; Euskadiko herritarren parte-hartze ILab-a; Open Eskola Herritarren eskola irekia, eta Integritatearen Euskal Sistema). Konpromiso horiek guztiak bi urtetan gauzatuko dira.

4. konpromisoa - Open Eskola - Zer da OE?

Zer dio OGPK misioari buruz?

Gai publikoetan herritartasun aktiboagoa eta administrazio ireki eta gardenagoa sustatzea, kultura parte-hartzailearen bidez eta etengabeko hobekuntzan erantzukizuna partekatuz.

4.konpromisoaren xede orokorra

Euskal gizartearen balio publikoa sortzeko parte-hartze eta lankidetzak kultura sustatzea, lankidetzako trebetasunetan gaituta.

4. konpromisoaren deskribapena

Herritarrentzako eskola irekiko eredu egiaztatu bat garatzea, Euskadin elkartzeko eta ikasteko eremu gisa, herritarrek gai publikoetan partaidetza handiagoa izan dezaten eta administrazioa kontuak ematean eta etengabe hobetzean irekiagoa izan dadin.

Helmena:

Zeharkakoa. Euskal administrazio guztiek parte hartuko dute, beren interesen arabera.

Helburu operatiboak / emaitzak:

Euskadirako Open Eskola eredu bat garatzea, edozein udalerritarako, eta sarean jardunbide egokiak ikasteko eta trukatzeko aukera ematea. Hauek dira helburuak:

- **Informazio publikoa partekatzea** herritarrekin, ahalik eta modurik irisgarri eta ulerterrazenean: administrazioen jarduna hobeto ezagutzea eta hobetzeko proposamenak sortzea, negoziazioaren eta interesak bateratzearen bidez. Horrela, haien hiriko/lurralde historikoko/autonomia erkidegoko aukera, erronka eta etorkizuneko proiektuen inguruan gogoeta egiteko eta eztabaidatzeko eremu irekiak ere sustatuko dira.
- **Konfiantzan oinarritutako lankidetzak jarrera eta portaerak eragitea** herritarren nahiz eragile publikoen artean. Horri esker, alderdien behar eta interesak, komunikazio eraginkorra, entzute aktiboa, gatazkaren prebentzioa edo gatazkei aurre egin gabe konpontzeko modua aztertuko dira, alderdientzat onuragarriak diren akordioak bilatuz.
- Arrazoia edozein dela ere, parte hartzeko oztopoak dituzten **pertsonak** (adinekoak, hizkuntza-mugak dituzten etorkinak, heziketa maila baxuko pertsonak...) **gaitzea eta motibatzea**.

Horrek honako hauen ereduak sortzea dakar:

- Kudeaketa publikoari buruzko informazio eta komunikazio sistemak, kudeaketa publikoko sail bakoitzaren buruekin elkarrekintza ereduak erabiliz; baita herritarren zerbitzu publikoen kudeaketari buruzkoak ere (gizarte zibila eta hirugarren sektorea), balio publikoko sortzaile gisa (administrazioak eta elkarteak).
- Motibazio sistemak, gaitasunen irakaskuntza eta ikaskuntza, balio publikoa batera sortzeko, baterako kudeatzeko eta abar.

Nork zuzenduko du eta zergatik:

Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak herritarrentzako eskola ireki bat duelako.

Parte hartuko duten erakundeak eta pertsonak:

Zuzenean lagunduko dute: Bilboko Udalak eta Innobasquek.

Eusko Jaurlaritzak, 3 foru aldundiek, hiriburuetako 3 udalek eta Eudel-Euskal Udalerrien Elkarteak nahiz erakunde publikoek parte hartuko dute.

Foro irekiarekin egindako partaidetza prozesuan, konpromisoaren garapenean parte hartzera gonbidatutako erakunde eta pertsonak identifikatuko dira.

Konpromiso mota:

Zeharkakoa. Ereduaren oinarriak partekatuko dira, pixkanaka interesa duten EAEko administrazio guztietan ezartzeko.

Aztertzen duen arazoa:

Administrazio guztiok ari gara parte-hartze prozesuak abian jartzen. Hala ere, **prozesuok ez dute beti herritarren interesa pizten, eta ez dira beti eraginkorrek proposamenak, eztabaida edo beharizan konplexuetarako konponbideak sortzeari begira**. Askotan, administrazioak administrazio gisa jakinarazten du, eta herritarrek ez dute sentitzen parte har dezaketela, eta hala egitekotan, egindako ekarpenak ez dituztela nahikoa aintzat hartzen sentitzen dute. Elkar behar duten eta ororen onerako lankidetzan aritu behar diren bi alderdi.

Euskadirako demokraziaren eta herritarren partaidetzaren liburu zuriak, 2014. urtean 600 pertsona eta 150 erakunde baino gehiagoren parte hartzearekin egindakoak, zabaltze fasean garatu beharreko 10 faktoreen artean hauek identifikatzen zituen:

- **Kultura parte-hartzailea nola sustatu** (nola erakutsi parte hartzen, nola ikasi, nola sortu kultura) eta administrazioaren eginkizuna hori sustatzeko: parte-hartzean heztea, gizartean partaidetza aitortzea, solaskide legitimoa aitortzea, eremuak eta partekatutako baliabideak...) **Parte hartzeko gaitasunak** (politikoenak eta herritarrenak) eta nola garatu.

Balorazioa: Izan dezakeen eragina

Ekimen honi esker, partaidetzaren kultura sustatzen laguntzen duen eredu bat sistematizatuko da, herritarrengan eta eragile publikoetan eskumenak garatuz, lankidetzan aritu daitezten. Horrek, euskal gizartearen heldutasun demokratikoa ekarriko du.

4. konpromisoaren eta 3. konpromisoaren arteko lotura

Hain zuzen ere OGPEK3ren eta OGPEK4ren gogoeta estrategikorako taldeak bildu egiten dira, bi konpromiso horiek hartu-emanetan izateko etengabe, biek helburu/proiektu bera baitute: **batetik, euskal gizartean kultura parte-hartzailea eta elkarlanekoa sustatzea, balio publikoa sor dezaten, lankidetzarako gaitasunetarako trebatuz; bestetik, herritarren partaidetzan berrikuntza publikoaren inguruko foro egonkorra eratzea.**

Zer da ILab delakoa?

Lankidetzeta publiko eta sozialeko laborategia da, partaidetzan berritzeko, balio publikoa sortze aldera. Esperientzia, jakintza, gaitasun edota behar desberdinak dituzten eragileek euren artean harremanetan jartzeko eta lan egiteko modu berriak diseinatzeko, esperimentatzeko eta gauzatzeko bidea da. Adimen kolektiboan, baterako diseinuan eta elkarlaneko esperimentazio irekian oinarritutako printzipioak, prozedurak eta tresnak ematen dira. Esperimentazioaren kultura, hots saiakuntza eta errakuntza bidezkoa, sozializatzen laguntzen dute; baita arrisku maila txikiagotzen ere. Horrela, porrot egiteko aukera partekatu eta arintzen da. Horrez gain, edozein kasutan, benetako egoeretan aplikagarria izan behar du.

Zer harreman mekanismo zehatz ezarri dira bi konpromisoen artean?

Eusko Jaurlaritzaren Talde Sustatzailearen zeharkakotasuna, aldizkako bilerak bi taldeetako gogoeta estrategikorako taldeen artean, bi konpromiso taldeetan parte hartzen duten eragileak, konpromiso talde bakoitzaren gai-zerrendan puntu bat sartzea beste konpromisoaren egoerari buruz aritzeko, beste taldeko kideak konpromiso bakoitzaren kontraste taldeetara gonbidatzea.

Egokiena izango litzateke ILab bat ezartzen den udalerrri/lurralde berean jartzea Open Eskola, eta harreman eremuak, osagarriak eta bakoitzaren zehaztasunak aztertzea. Horrez gain, lurralde horretako proiektu/erronka jakin baten arabera egingo lirateke biak.

OE lantaldeak

GR – Gogoeta estrategikorako taldea

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak osatzen dute.

GC – Konpromiso taldea

Herritarrek, adituek, erakundeetako teknikariek eta politikariek osatzen dute.

GAM – Talde handia

Herritarrek, gogoeta estrategikorako taldeak (GR), konpromiso taldeak (GC) eta talde aholkulariak osatzen dute (GA).

GA – Talde aholkularia

Prozesuan laguntza eskaintzen duten adituak.

Open Eskola Gida sortzeko emandako urratsak

2018ko urritik hauek dira emandako urratsik esanguratsuenak:

- 0. urratsa - KONPROMISO TALDEAREN BILERA - Open Eskola bat eraikitzeke garrantzitsutzat jotzen ziren 88 elementuren zerrenda sortu zen.
- 1. urratsa - MAPAKETA - Open Eskolaren errealitatean aplikagarriak ziren Euskadiko, Estatuko eta nazioarteko erreferentziako esperientzien mapaketa egin zen. Azterketa egiteko, aurretik aipatutako 88 elementuak hartu ziren kontuan, 5 kategoriatan banatuta (trebakuntza, suspertze soziokomunitarioa, udalerrria/lurraldea ezagutzea, antolaketa egitura eta plataforma parte-hartzaileak).
- 2. urratsa - MAPAKETAREN TXOSTENA - 42 esperientzien azterketaren txostena egin zen, kategoria bakoitza banakatuta.
- 3. urratsa - OE GIDAREN ZIRRIBORROA - Azterketan eta landutako elementuetan oinarrituz, beste kategoria bat sortu zuten: baliabideak. Horrela, 6 taula sortu ziren, bana kategoriako, gidaren lehen zirriborroa sortzeko. Halaber, ikusi zen beharrak eta eskaerak, udalerrri edo lurraldearen tamainaren arabera, desberdinak izan zitezkeela. Beraz, taulak biztanleriarekin gurutzatu ziren (1000 biztanle arte; 10.000 biztanle arte; 25.000 biztanle arte; 50.000 biztanle arte; 50.000 biztanletik gorakoak; kuadrillak/eskualdeak)

KONPROMISO TALDEAREN BILERA - Gidaren edukia aztertzeke eta haren zirriborro proposamena egiteke, hiru aldagai hauen konbinazioa landu zen:

- Edukia eta euskarria: gaikuntza, indartze soziokomunitarioa, parte hartze plataformak, udalerrria/lurraldea ezagutzea, antolamendu egitura eta baliabideak.
- Biztanle kopurua. 1.000 biztanle arteko lurraldeak, 1.000 eta 10.000 biztanle bitartekoak, 10.000 eta 25.000 biztanle bitartekoak, 25.000 eta 50.000 biztanle bitartekoak, 50.000 biztanle baino gehiagokoak eta kuadrillak/eskualdeak.
- OEen baldintzak:
 - OEtzat jotzeko beharrezkoak/oinarrizkoak; OE hobetzen duten edo balio erantsia ematen dioten baldintzak.
- 4. urratsa - OE GIDAREN ZIRRIBORROA EGIAZTATZEA - Saio parte-hartzaile zabala, proposamen zirriborroa aztertzeke eta hobetzeko. Hauek dira saioan lortu nahi ziren emaitzak: proiektuaren testuingurua eta eragin soziala jakinaraztea. une horretara arte landutakoa aztertzea eta egokitzea. prozesua sozializatzea eta partekatzea, eta ikuspegi berriak gehitzea.
- 5. urratsa - OPEN ESKOLA TXERTATZEKE PROPOSAMENA - Talde handiak saio parte-hartzailean egindako ekarpenekin Open Eskola gidaren hirugarren bertsioa egin zen. Udalerrriak eta lurralde pilotuak horretan oinarrituko dira 2019ko ekaina eta 2020ko ekaina bitartean ezartzeko.
- 6. urratsa - OE GIDA AURKEZTEA - Lurralde eta udalerrri pilotuetan ezartzearekin batera, gida konpromiso taldeari aurkeztu zitzaion, proposamena egokitzeke eta gidan egindako lana baliozkotzeko.
- 7. urratsa - OE GIDA HEI-N ETA UDALERRI/LURRALDE PILOTUETAN EZARTZEA - 2019ko maiatzetik 2020ko maiatzera OE gida ezarriko da udalerrri eta lurralde pilotuetan. Horrez gain, HEIn, Gasteizko

Herritarren Eskola Irekian, gidan ezarritako hobekuntza eta aldaketak sartu dira. HEIz gain, eta dokumentu hau egin den unera arte hartutako erabakien arabera, OE honako hauetan ere pilotutako da:

- Bilboko Udala
- Tolosako Udala
- Añanako Kuadrilla

Hauek dira 2020. urteko abuztura arte gauzatu beharrekoak:

- 8. urratsa - PROIEKTU PILOTUAK GARATZEA ETA HAIEN JARRAIPENA EGITEA - Gidaren 3. bertsioa aplikatuko zaie proiektu pilotuei, konparaketak eta probak egin eta dokumentua hobetzeko. Prozesuan zehar, aldi behin, jarraipen bilerak egingo dira proiektu pilotuen taldeekin eta informazio eta jarraipen bilerak bai Konpromiso Taldearekin, bai Gogoeta Estrategikorako Taldearekin.
- 9. urratsa - EBALUAZIO PARTAIDETUA - Proiektu pilotuak ezarritakoan, partaidetza saio bat egingo da, gida ebaluatze eta beharrezko doiketak proposatzeko, jarraipen eta hobekuntza adierazleetan oinarrituz.
- 10. urratsa - OPEN ESKOLA GIDA - Ezarriko den gidaren behin betiko lehen bertsioa egingo da, Open Eskola Euskadiko edozein udalerrri edo lurraldetan abian jartzeko.

2- Zergatik eta zertarako nahiko nuke Open Eskola ezarri nire lurraldean edo udalerrian?

Hasteko, **herritarren parte hartzea herritarren eskubidea da, eta balioa eta betebeharra/erantzukizuna ere bada**. Horiek horrela, oro har administrazio publikoen eta zehazki toki administrazioen lege erantzukizuna da hori ahalbidetu eta sustatzea.

Nahikoa heldua den gizarteak gaitu egin nahi du bere hiriaren/erkidegoaren/lurraldearen garapenean aktiboki parte hartzeko.

Administrazioaren eginbeharra eta erantzukizuna da parte hartze hori ahalbidetu, bideratu eta errentagarri egitea.

Planteamendu orokorraz gain, badira oso interesgarriak diren beste zenbait kontu zehatzago:

1. Ezinbestekoa da **herritarren eta politikarien eta teknikarien arteko topaketa eta ikasketa guneak sortzea. Hori dela eta, OE herritarrentzat da, baina baita politikari arduradunentzat eta erakundeetako teknikarientzat**. Gure gizarteetan erakundeekiko konfiantza krisi eztaba daezin eta larria bizitzen ari dira. Eta beharrezkoa da hori aldatzea, zintzotasunaren eta konpromisoaren bidez, eta herritarrek eta erakundeek elkar ezagutzeko, hartu-emanak izateko eta enpatizatze guneak sortuz. Herritarrek haien erakundeak eta ordezkariak elkarbizitzaren eta bizi kalitatea hobetzearen zerbitzura dauden tresnatzat izan behar dituzte.
2. Beharrezkoa da gure gizarteak alde batera uztea interes partikularrak eta denon interesen, balio publikoaren eta denon ongizatearen alde egitea, zuzentasun printzipioetan oinarrituta, jakina. Hori da ezaugarri nagusietako bat kalitate demokratiko ona duten gizarteetan.
3. **Etengabeko ikaskuntza beharrezkoa da gure gizarte ereduaren oinarria den elkarbizitzarako**. Zenbait trebetasun (besteak beste, entzuten jakitea, elkarriketa, argudiatzeko gaitasuna edota gatazkak kudeatzea) eskuratu egin behar dira eta horietan trebatu eta gaitu egin behar da.
4. Horrekin lotuta, komunitate-gizartea indartu egiten da. Gizarte kohesionatua, bizi kalitate hobea eskaintzeaz gain, gai da banakakoentzako eta gizartean lan aukera berriak garatzeko, berrikuntza sortzeko, herritarren konpromisoa lortzeko, lurraldearekiko harrotasuna sustatzeko eta talentuari eusteko eta hura erakartzeko.
5. **Jadanik badenari balioa ematen zaio**. Esan bezala, OEK bat etorri behar du hiriaren edo udalerraren garapen estrategiarekin. Horrela, **palanka biderkatzaile lan egingo du, estrategia hori sendotzeko eta pertsonak denontzako proiektu horretara erakartzeko**.
6. Laborategi logikarekin bat etorri berritzeko balioko du. Zentzuzkoa da pentsatzea gaikuntza berrikuntzaren aurreko pausoa dela. Eta aurreko pausoa ez balitz ere, argi dago bi elementu horiek erabat osagarriak direla. **Geroz eta konplexuagoak eta askotarikoagoak diren gizarteak ditugu eta galdera berei erantzun berriak eman behar dizkiegu, baina, batez ere, galdera berriak egin behar ditugu**.
7. OEK **herritarren hurbileko zerbitzuak eta jarduerak antolatu behar ditu, bereziki udalerraren antolakuntzarekiko herritarren parte-hartze alor zeharkakoarekin lotutakoak**. Halaber, lotura izan beharko du beste erakunde batzuekin eta herritarren parte hartzerako beste tresna batzuekin. Horrela, udal antolamendu baliabideekin eta ahaleginekin bat etorriko da eta horiek optimizatze balioko du.
8. Lurraldea identifikatuko dute balio inbentarioa sortzen du. Enpresetan antolamendu kultura, estiloa eta balioak erabiltzen diren moduan, OEren bitartez antolatutako herritarren parte hartzeak lagundu beharko luke **lurralde bakoitzean kultura, estilo eta balio propioak sortzen**.

9. OEK lau mailatan izan behar du baliagarri, neurri handiagoan edo txikiagoan:

- Igorlea
 - a. Administrazioaren eta herritarren arteko hartu-eman horretan, OEK ahalbidetuko du **erakundeak herritarrei helarazi nahi dien informazio garrantzitsua bideratzea eta biderkatzea**. Sentsorea
 - a. OEren bidez sortzen diren eta OEK berak sortzen dituen jardueren bidez, gure komunitateetan sortzen ari diren egoerak diagnostikatu eta aztertu daitezke. Helburua litzateke **egoerei, beharrei, nahiei eta gatazkei antzemate, administrazioak horiek nola kudeatu aurrez erabakitzen joateko**.
- Transmisio uhala
 - a. OE **administrazioa elikatzeke eta tokiko erabakiak hartzeko orientatzen duen gunea izan daiteke, hartu-eman prozesu ezinbestekoan**. Kontsulta organoa izan daiteke (jadanik badirenekin batera, eraginkorrak badira), komunitatearen laginketa izatea helburu duenez gero. Herritarrek izan behar dute aldaketaren benetako motorra, politika publikoak diseinatzeke, kudeatzeko eta ebaluatzeke orduan salto kualitatiboa ematea ahalbidetuko duten hobekuntzak bilatu eta abian jartzeko.
- Zuzenketa faktorea
 - a. OEK nahikoa malgutasun eta egokitzeko gaitasun izan beharko du **bere edukiak bideratzeko udalerrri edo lurralde batean aukera edo mehatxu izan daitezkeen kontu zehatzetara** (kohesioa, xenofobia, inklusioa, belaunaldi arteko harremana, gazteen ekintzailletza eta ikaskuntza...).

3.- Nola jar dezaket abian OE? (Gida bat egiten da biztanle segmentu bakoitzerako)

Open Eskolaren gida egiteko eta abian jartzeko OGP Euskadi 2018-2020 Ekintza Planaren 4. konpromisoaren kronogramaren barruan, 7. puntuan, gida pilotua interesa duten udalerrietan ezarriko dela jasotzen da.

Aldez aurreko urratsa: proba pilotua egin nahi duten tokiko erakundeen konpromisoak:

1. Antolaketa egiturarako eta baliabideetarako gutxieneko baldintzak betetzea.
2. Idazkaritza tekniko definitzea (kanpoko eta barnekoa).
3. Jarraipena egiteko konpromisoa.
4. Edukiei buruzko jarduerak egitea.
5. Open Eskolan sar daitezkeen jarduerak biltzea.
6. Balorazioak eta adierazleak ematea.
7. Beharrezkotzat jotzen diren beste batzuk.

0 fasea. Open Eskola Gidaren zirriborria

Aldez aurreko oharra

Gertaeren emaitzen, irizpideen eta egindako azterketetan oinarrituta, lehen zirriborria egin da.

1. Kategoriak bi arlo nagusitan banatu ditugu: **OE euskarria** (egitura eta baliabideak) eta **OE edukiak** (gaikuntza, indartze sozio-komunitarioa eta udalerria/lurraldea ezagutzea). Biak dira beharrezkoak, baina izaera eta baldintza desberdinak dituzte.
2. OE euskarrian eta OE edukietan ekintzak **hautatzeko irizpideak** parte-hartzaileek 19-02-19ko Konpromiso Taldearen saioan egindako lanaren eta posta elektronikoen bidez bidalitako iritzien emaitza dira.
3. Bi zati daude saio horretan egindako lanean: lehenengoa, norberak ekintzei buruz egindako hausnarketa da, hirien edota lurraldeen tamainaren arabera, hau da, ekintza horiek biztanle kopuruaren arabera ezinbestekotzat jotzen dituzten baloratzea.

Biztanle kopuruaren arabera baliozkotzeko oinarria: Idazkari teknikoak hala proposatuta, eta Konpromiso Taldeak onartuta, jarduera bat ezinbestekotzat/oinarrizkotzat hartzeko >% 70aren irizpidea erabili da.

Dinamikaren bigarren zatian, talde hausnarketa bat egin zen kategoria bakoitzaren ekintzei buruz. Atal bakoitzerako garrantzitsuenak hautatzea zen helburua.

Dinamika horietan, parte-hartzaileek edozein atal berri iradoki zezaketen, eta amaitzean, bateratze lana egitean, lanean sartzeko beharrari buruz eztabaidatu zuten.

Kategorien arabera baliozkotzeko oinarria: Idazkari teknikoak proposatuta, eta konpromiso taldeak onartuta, OE guztietarako ezinbestekotzat/oinarrizkotzat hartzeko >% 66aren irizpidea erabili da, balio hori gainditzen duten ekintzetarako, lurraldearen edo hiriaren tamaina (biztanle kopurua) kontuan hartu gabe.

Hautaketa irizpideei buruzko oharra: Konpromiso Taldeak saio honetan egindako lana aurretik garatutako beste lan zabal batean oinarritu da, zeinetan hauek sortu baitziren:

- Konpromiso Taldearen lehen saioaren ondoren, OE baten antolaketa egituraren ikuspegitik beharrezkotzat jotzen diren 88 elementu aurkitu ziren.

- Mapaketaren ondoren, jardunbide egokien katalogo bat egin zen (42 esperientzia).
Horrez gain, gure ustez, **azpimarratu beharra dago zirriborroa dokumentu bizia dela**, eta prozesua ez dela hemen amaitzen. Jarraitu beharreko prozedura bat da, eta udal edo eskualdeetan aurreikusitako pilotatzeek ikuspegi askoz ere zabalagoa emango digute. Horrek, gidaren zirriborroa elikatuko du, nabarmen hobetuz, eta amaitzeko, 2020. urtearen ondoren, Open Eskolaren ezarpen prozesuari esker, hobekuntzak azaleratzen joango da. Hobekuntza horiek, Open Eskola ezartzeko etorkizuneko gidan sartu ahalko dira.
4. **Garrantzitsua da adieraztea OE ez dela oinarritzen ekintza kopuruan. Ikuspegi kualitatibotik, Udal (edo lurralde) Politika Estrategiko batean nola egituratzen den aztertzen du, balio publikoa sortzeko helburuarekin.**
 5. Taula horiek, OE parametro gisa, helburu hauek dituzte:
 - a. Lurraldean jadanik dagoena -programak, ekintzak, zerbitzuak eta abar- eta OE baten sar daitekeena **zehaztea eta antolatzea**.
 - b. **Ez dagoena** eta OE bat, hemen zehazten ari den moduan, sortzeko **beharrezko baldintza dena zehaztea**.
 - c. **Chek-list gisa erabiltzea**. Horrela, ekintza lerroak ezartzeko eta lehenesteko tresna gisa erabiliko dira.
 6. Udalerrri/lurralde bakoitzak gida egokitu ahalko du, interesen eta strategiaren arabera, beharrak, eskalak, egoera eta interesak kontuan hartuz, baina OEren arabera, "hauteman" daitekeen proiektu bat sortuz.
 7. Zentzu horretan, Gida honen helburua da nahikoa malgua izatea errealitate desberdin horietara egokitzeko, eta nahikoa zorrotza izatea, berriz, OE eredu bat identifikatzeko eta ezagutzeko, alegia, erabat antzeman daitekeen estiloa ezartzen duten zenbait baldintza "iradokitzeko".
 8. **OE kultura parte-hartzailea eta elkarlanekoa sustatzen saiatzen da, bai bere eginkizunetik, bai bere diseinutik**. Maila guztietan gizarte eragileen arteko lankidetzak sustatzen du, erakundearen artean, eta haien eta herritarren artean fase guztietan. Halaber, publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak.
 9. Horrekin lotuta, berriz azpimarratu behar da **OEren hartzaileak herritarrak ez ezik, arduradun politikoak eta erakundeetako teknikariak ere badirela**.
 10. Tokiko politikaren ikuspegi ideologikoarekin zerikusia duten aplikazio desberdinak kontuan hartuz, **badirudi komenigarria dela OEek urte anitzeko zikloen arabera funtzionatzea** (akordioen eta itun orokorren arabera egituratutako interes alderdikoiak gainditzen dituztenak).
 11. Aurrekoaren ondorioz, **komenigarria da erakunde bat eratzea formalki**, ahalbidetuko duena Open Eskola lurralde eta udaletan ezartzea, baliozkotzea eta jarraipena egitea, eta beste OE batzuetan aplikatzeko jardunbide egokiak biltzea.

Gutxi gorabeherako edukiei eta euskarrii buruzko taula

Erabilera eta orientazioa errazteko, tauletan adierazitako irizpideen arabera, ezartzen diren Open Eskola pilotuetarako ezinbestekotzat jo diren baldintzak eman ditugu, itzal **BERDEZ**. Gainerakoak, itzal **LARANJAZ** adierazitakoak, gure ustez Open Eskola pilotu bati balioa ematen diotenak dira, biztanleen/lurraldearen tamainaren arabera.

EDUKIAK - OPEN ESKOLA

GAIKUNTZA

Biztanleak/ Lurraldea Ekintzak	1.000 arte	1.000 – 10.000	10.000 – 25.000	25.000 – 50.000	50.000 baino gehiago	Kuadrillak Eskualdeak	Zertan datza?
Gizarte trebetasunak							Entzuten jakitea, parte hartzea, iritziak ematea eta konbentzitzea, negoziatzea, xedeak ezartzea.
Herritarren eskubideak eta betebeharrak							Legeak eta hizkuntza teknikoak guri dagokigunera eta gure egunerokoari eragiten dioten gauzetara ekartzea
Eztabaidatu eta erabakitzea							Gaitzea eta herritarren eta administrazioaren arteko lotura ezartzea; hau da, enpatia izatea. Azpimarratzea prozesu orientatutik jo behar dela, ekintzara bideratutako parte hartzean eragin behar dela
Balio publikoa sortzea							Nola sortzen diren erabaki kolektiboak, non parte hartzen duten alderdiek -kudeatzaile publikoek nahiz politika gauzatzen dutenek, erabiltzaileek, herritarrek eta oro har gizarte zibilak- etekin kolektiborik handiena bilatzen dutena, norberaren interesez harago. Abiapuntua da balio publikoa sortzea ez dela erakundeen ondarea bakarrik.
Proiektuen kudeaketa							Ikuspegi metodikoa ematea proiektuaren prozesuak hasieratik amaierara planifikatzeko eta orientatzeko, etapan arabera: sortzen denetik, itxi arte, tartean plangintza, gauzatzea, jarraipena, helburuen orientazioa, kontrola eta ebaluazioa egonda.
Porrota kudeatzea							Hobekuntza prozesuak, laborategiko logika oinarri, non errorea eta porrota aurrerapausoaren eta aurrerabidearen zati baitira
Sorkuntza aplikatua							Pentsamendua eta sorkuntza teknikak sustatu eta inplementatzea; baita berrikuntza norberak edo profesionalki aplikatzearen aldeko jarrerak ere.
Parte hartzearen joerak eta egoerak							Arrakasta kasuak eta haiek gure errealitatera ekartzeko aukera aztertzea. Arrakasta kasuak haien protagonistek kontaktuta.

INDARTZE SOZIOKOMUNITARIOA

Biztanleak/ Lurraldea Ekintzak	1.000 arte	1.000 – 10.000	10.000 – 25.000	25.000 – 50.000	50.000 baino gehiago	Kuadrillak Eskualdeak	Zertan datza?
Komunean daukagunak duen balioa garatzea							Giza inguruneak dauzkan balio komunak. Erantzukidetasuna eragitea eta komunitate kontzientzia sorraraztea (gizarte kohesioa), bizi kalitatearen eta garapen estrategikoaren ardatz gisa. Denen balioak identifikatzea: bizi diren hiritik amesten duten hirira. Atal honetan, azpialdian gisa gehitzen dira aniztasunaren kudeaketa eta gatazkaren kudeaketa.
Haurrek, gazteek, hirugarren adinekoek eta belaunaldien artean eztabaidatzeko eremuak							Udal erabakiak hartzeko guneen moduko guneak, arau, eskubide, betebeharrak eta guzti. Erakusgarriak. Laginduak. Haurrak, gazteak, hirugarren adinak eta bestelakoek eztabaidatzeko eremuak izan daitezke. Belaunaldien artean eztabaidatzeko eremuak ere proposa daitezke.
Herritarrentzako <i>challenge</i> eta erronka programak							Batzea premia zehatzekiko adimen kolektiboa eta denontzako onurak (ez bakarrik gizarte onurak). Herritarrek lotzea eta mugiaraztea erronka publikoei irtenbiderik onenak bilatzeko.
Elkarren arteko sorkuntza							Gure hirietan fisikoki eragiten duten proiektuak sortzea. Esku hartzea eta espazioak autokudeatzea

UDALERRIA/LURRALDEA EZAGUTzea

Biztanleak/ Lurraldea Ekintzak	1.000 arte	1.000 – 10.000	10.000 – 25.000	25.000 – 50.000	50.000 baino gehiago	Kuadrillak Eskualdeak	Zertan datza?
Norabide anitzeko eremuak, proiektuak eta esperientziak							Ez da bakarrik herritarrek erakundea ezagutzea, baita erakundeek herritarrek eta herritarren proiektuak "ezagutzea" ere. Helburua da elkarrekiko ezagutzan oinarrituz konfiantza sortzea, enpatia izanez, eragile guztien artean partekatutako ezagutza eta esperientziak sortuz.
Administrazio publikoek nola funtzionatzen duten azaltzen duten programak/esperientziak							Bisita gidatuak, atek zabaltzeko jardunaldia, hitzorduak, oro har, herri administrazioak ezagutzen laguntzen duten ekintza guztiak, bizitza publikoan parte hartzea sustatzen duena.
Maila anitz: Ondarea, eremu naturalak, historia eta tradizioak, artea...							Lurraldea maila askotan ezagutzen da. Ezagutza horiek modu zabal eta atseginean jasotzea da herritarren parte hartze eskolek proposatu behar duten xedeetako bat.

Lurraldearen ezagutza gaurkotasuneko gaiekin lotzen duten esperientziak							Lurraldea gaurkotasuneko gaien bidez ezagutzea askoz ere atseginagoa da lurraldearekiko interesa pizten laguntzen du. Gogoeta eta ekintzarako orientazioa sustatzea da kontua.
-------------------------------------------------------------------------	--	--	--	--	--	--	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

EUSKARRIA - OPEN ESKOLA

ANTOLAMENDU EGITURA

Biztanleak/ Lurraldea	1.000 arte	1.000 – 10.000	10.000 – 25.000	25.000 – 50.000	50.000 baino gehiago	Kuadrillak Eskualdeak	Zertan datza?
Ekintzak							
Talde eragilea							Talde egonkorra da, herritarrek osatutakoa, banaka antolatuta, eta erakundearen zenbait arloko arduradun teknikok ere osatutakoa. OE ikuskatzen, diseinatzen eta ebaluatzen dute.
Herritarren eta administrazioaren lankidetzari buruzko arautegia							Arautegiak sakon berritzen du hiriaren zaintza eta administrazioa, aurrekaririk ez duen lankidetzaren modu bat sortuz administrazioaren, herritarren eta toki erkidegoko beste artikulazio batzuen artean OEk estilo bera izateko aukera ematen duen gutxieneko baldintzak sortzen dituena.
Udalaren antolamendu osasuna							Proiektu bat da aurreikusten duena udal antolamenduko kideek norik bera hobetzeko eta hazteko prozesu bat, izango dena herritarrek eta administrazioak elkarri hobeto eragiteko eta herritarrei ematen dizkiegun zerbitzuak hobeto emateko.

**OE Koordinazio taldea: Lurralde eta Udalei Open Eskola ezartzen, baliozkotzen eta jarraitzen laguntzen dien organoa da. Jardunbide egokiak biltzen ditu beste OE batzuetan aplikatzeko.*

BALIABIDEAK

Biztanleak/ Lurraldea	1.000 arte	1.000 – 10.000	10.000 – 25.000	25.000 – 50.000	50.000 baino gehiago	Kuadrillak Eskualdeak	Zertan datza?
Ekintzak							
Open Eskolaren diru aurrekontua							Diru aurrekontua egitea Open Eskolako arlo guztiak garatzeko eta idazkaritza teknikoaren zati bat kudeatzeko. Aurrekontu hori erakundearen artean proposa dezakete, eta egokiena da urte anitzeko zikloetan proposatzea, proiektuari jarraitutasuna eta egonkortasuna emateko.
Komunikazio plana							Kanpoko eta barneko komunikazio plan bat egitea, OEren, jardueren eta helburuen berri emateko, lurralde politikan kokatzeko, balio publikoa sortzearekin lotzeko, herritarrekin, teknikariekin eta ordezkari politikoekin.

Lehiaketa araubidean emandako dirulaguntzak							Deialdi horrek laguntza eta lankidetzat tresna bat izan nahi du udal eremuan elkarte eta irabazteko xederik gabeko beste erakunde batzuentzat, gizarte ehuna garatu eta toki garapena bultzatzen duten jardunak egitean, herritarren parte hartzearen bidez, gizarte ahalduntzearen bidez eta erkidegoaren ekintzen bidez.
Erakundeko arloko koordinazioa eta zeharkakotasuna							OEak behar bezala funtzionatu dezan, garrantzitsua da parte hartu dezatela sail desberdinetako teknikariek eta aholkularitza teknikoak izatea parte hartze zerbitzuaren OEren operatiborako.
Plataforma parte-hartzaileak							Adimen kolektiboa aprobetxatu eta aberasten laguntzen dute, herritarren maila guztietan eta sektoreetan parte hartzea ahalbidetuta; baita haien eboluzio garapenean ere. Plataforma hauen bidez errazagoa da distantzia fisikoak eta denboraldi bateko gaitasunek mugatutako partaidetza. Horrela, ororen interesetarako orientazioan laguntzen da. Gune fisiko eta birtualen artean konbinatzeko aukera ematen dute.
Herritarrek parte hartzeko zentro fisikoak							Jarduera eta zerbitzu gune bat herritarrentzat, elkarte eta herritarren taldeentzat, udaleko eta beste administrazio batzuetako politikari eta teknikarientzat eta hainbat eremutako arlo soziokomunitarioko profesionalentzat (hezkuntza, kultura, osasuna eta ingurumena).
Idazkari teknikoak							Udalekoa bertakoa edo kanpokoa.
Baliabide juridikoak							Erakundeak zerbitzu juridiko bat izan behar du lurralde edo udal bakoitzeko araudia bete dadin.

1. fasea. Talde sustatzailea sortzea (osaera eta funtzioak)

Talde sustatzailea osatu aurretik, esan beharra dago Ope Eskolak hura bultzatzen duen erakundearen barruko adostasunean oinarritu behar duela Hori dela eta, udalbatza da (edo lurralde organo baliokidea) OEren funtzionamendua bermatu eta legitimatzeko egokiena. OEren barne komunikazioko programan, organo horri informazioa emango zaio etengabe, OEren jarraipena eta norabidea bermatzeko.

Talde sustatzailearen eginkizunak	Agentea	Gutxieneko baldintzak	Baldintza egokienak
Edukien eta euskarrien baldintzetatik/tauletatik abiatuta: <ul style="list-style-type: none"> • OEren lerro orokorrak eta xedeak zehaztea • Planteatzea nola uztartzen den OE lurraldeko politika estrategikoan • Hala badagokio, aurrekontua esleitzeko administrazio prozedura ezartzea • Talde eragilea osatzeko profilak zehaztea • Idazkaritza ezartzea, bideratzea eta osatzea • Eskolaren urratsak eta jarraipen datak planifikatzea 	Ordezkaritza politikoa	Zinegotzigo arduraduna	Gobernu taldeko alderdietako ordezkariak
	Udal teknikariak	Herritarren parte-hartze alorra	Sail arteko batzordea, zenbat eta alor gehiagok parte hartu, orduan eta hobeto
	Idazkaritza teknikoa	Barrukoa edo kanpokoia izan daiteke, beharren arabera, lurraldearen tamainaren arabera edo OE garatuko duen erakundearen nahien arabera	
		Idazkaritza teknikoa barrukoa bada, talde teknikoko teknikari eta politikarien artetik aukeratutakoek osatu ahal izango dute	
		Idazkaritza teknikoak izango du OE antolatu eta garatzeko ardura eta, beraz, hartan antolatzen diren ekitaldiak, jarduerak, ikastaroak etab. egoki gauzatzearen erantzukizuna ere	

2. fasea. Egitura eta baliabideak: OEn sar daitezkeen tokiko esperientziak mapatzea eta ezinbesteko elementuen *check lista* egitea.

Baldintzak	Badira	Ez dira	Oharrak
Talde sustatzailea			
Talde eragilea			
Aurrekontua			
Komunikazio plana			Barrukoa
			Kanpoko
Idazkaritza tekniko			Barrukoa
			Kanpoko
Gaikuntzarekin lotutako jarduerak			
Komunitatea sendotzearekin lotutako jarduerak			
Lurraldea ezagutzearekin lotutako jarduerak			

3. fasea. Talde eragilea sortzea

Osaera:

- Herritarrak
- Udaleko teknikariak
- Idazkaritza teknikoa
- (beharrezkotzat joz gero, kide gehiago sar daitezke)

Eginkizunak:

- Talde tekniko-estrategikoak planteatzen dituenak aztertzea eta hobetzeko proposamenak egitea.
- OEren programa aztertzea eta hobetzeko proposamenak egitea.
- OEren jardueren jarraipena egitea.
- OEren eskaerei, beharrezaneiei eta nahiei erantzutea.
- Helburuak egokitzea.
- Osagai, gai, aditu, metodo berriak proposatu eta aztertzea.

Bileren aldizkakotasuna:

- Ikasturtearen hasieran aurreikusitako programa aztertu eta elikatzeko
- Ikasturtea amaitzean ebaluazio/balioztapen orokorra egiteko
- OEren jarraipen egokia egiteko behar den guztietan (printzipioz, bi hilean behin)

Talde eragilearen bilera baten adibidea (gidoia):

Lehenengo atala (60')

- Hurrengo hilabetean aurreikusitako jarduerak
- Haien xedeak
- Zailtasunen eta aukeren aurkezpena
- Haiek balioztatzea/zehaztea

Bigarren zatia (60')

- Azken hilabetean egindako jarduerak
- Planteatutako helburuen eta lortutakoen arteko egokitzapena
- Jarduerei buruzko txostena egitea
- Etorkizunean berregokitzapenak egiteko aukera
- OEren helburuen betetze maila

4. fasea. Diseinua, jarraipen adierazleak eta Open Eskola abian jartzea

Lehenengo hurbilketa: adierazleak eraikitzeke irizpideak

1. **Sortze, proba unean gaude. Behin betiko adierazleak proiektu pilotuetan eta haien jarraipenean eta azterketan oinarrituta eraikiko dira.** Horregatik, zenbait adierazle betekizun edo irizpide gisa daude idatzita adierazleak zehazteko.
2. Konpromiso Taldeak lan bat egin eta proposatu du, zeinetan irizpideak hierarkizaturik dauden, adierazleak eraikitzeke. Printzipioz, adierazle baloratuenekin egingo da lan nagusiki, baina lurralderen batek hala erabakiko balu, besteetako edozein ere har daiteke.
3. Proba pilotuetan, lurralderako zehatzagoak edo beharrezkoagoak diren beste adierazle batzuk sortu ahal izango dira. Mailen arabera antolatzea ere planteatu da: OErako oro har, proba pilotu bakoitzerako zehazki...
4. Lurralde bakoitzak adierazleak nola neurtu erabakiko du, ezingo baita leku guztietan berdin egin.
5. Kantitate baino kalitatea lortzen ahalegindu behar dugu, bai jardueretan, bai prozesuetan.

GAIKUNTZA
GAIKUNTZAREN ETA HERRITARREN ESKAEREN/BEHARREN ARTEKO LOTURA MAILA
PARTE-HARTZAILEEN DIBERTSITATEA ETA INKLUSIOA
ASEBETETZE MAILA
MOTIBAZIO MAILA PARTE-HARTZEAN, PROIEKTUETAN ETA PARTE-HARTZE PROZESUETAN
JARDUEREN INFORMAZIO ETA ZABALKUNDE MAILA
PARTE-HARTZE MAILA
HERRITARREK LEGEGINTZA ALDERDIAK ETA ALDERDI TEKNIKOADMINISTRATIBOAK GUNEAK, PROIEKTUAK ETA TRESNAK SORTZEA
PARTE-HARTZERAKO DAUDEN BIDEEN ERABILERA MAILA

INDARTZE SOZIOKOMUNITARIOA	
DESBERDINEN ARTEKO TOPAGUNEA SUSTATZEN DITUZTEN EKINTZAK	GAZTEAK JOAN DIREN IKASTARO/EKINTZA MOTAK
GURE KOMUNITATEARI ERAGITEN DIOTEN EDO EPE LABUR ETA ERTAINEAN ERAGINGO DIOTEN EGOEREZ ETA JOEREZ KONTZIENTZIATZEA	BELAUNALDI ARTEKO PROIEKTUEN/EKINTZEN KOPURUA ETA HAIEN ERAGINA
OE-REN EKINTZEK SORTZEN DUTEN PARTAIDE IZATE MAILA	BELAUNALDI ARTEKO KONTUETARAKO PRESTATZAILEAK EDO TREBATZAILEAK
ERREPIKATZE MAILA	ASEBETETZE MAILA
KOLEKTIBOEN ANIZTASUNA	OE-REN EKINTZEN SORTZEN DUTEN HARROTASUN MAILA HIRIARI/LURRALDEARI DAGOKIONEZ
OE-N PARTE HARTU ETA ONDOREN PARTE-HARTZE PROZESUETAN IZAN DIRENAK	DIBERTSITATEAREKIN ETA INKLUSIOAREKIN LOTUTAKO ARLDERDIEN INGURUKO KONTZIENTZIAZIOA ETA GAIKUNTZA
PARTE-HARTZE PROZESUEN KALITATE MAILA	EZTABAIDA GUNEAK MANTENTZEA
AUTOGESTIORAKO GAITASUNA	GUNE POLITIKOETAN EKINTZEK DUTEN ERAGIN MAILA

UDALERRIA/LURRALDEA EZAGUTZEA
HERRITAR ANTOLATUEN EZAGUTZA: EGITEN DITUZTEN JARDUERAK ETA HAIEN EBOLUZIOA
EZAGUTZAREKIN LOTUTAKO EKINTZAK, BIDEAK ETA PROIEKTUAK ETA ADMINISTRAZIOAREN
ETA HERRITARREN ARTEKO HARREMANA
GARDENTASUN MAILA
HAINBAT MAILATAKO EKINTZA KOPURUA
ADMINISTRAZIOAREN ETA HERRITARREN ARTEAN KONFIANTZA SORTZEA
HAINBAT MAILAREN ARTEKO KOORDINAZIOA
ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIOA
ERAKUNDEARTEKO ORGANO ETA BIDEETAN PARTE HARTZEA ARAUTZEN EDO AHALBIDETZEN
DUTEN ARAUTEGIAK SORTZEA
FIDELIZAZIO MAILA

ANTOMENDU EGITURA
ERAGILEEN DIBERTSITATEA
HERRITARREN (ANTOLATUAK IZAN ALA EZ) PARTE-HARTZE MAILA
KONPROMISO MAILA
ERA HONETAKO PROZESU BATEAN LEHEN ALDIZ PARTE HARTZEA
PARTE-HARTZAILEEN ENPATIA ETA EKITATEA
PROPOSAMENAK ZENBATERAINO BETE DIREN
HELBURU EZBERDINETARAKO TRESNA EZBERDINAK ERABILTZEA
AURREZ AURREKOTASUNAREN ORDEZKO AUKERAK
ASMO INKLUSIBOA

BALIABIDEAK
ERAKUNDE SUSTATZAILEEK LEGEALDIK KONTUAN HARTU GABE HAINBAT URTETARAKO
PARTIDA IZATEA
LANKIDETZA PUBLIKO/PRIBATUA
LANKIDETZA HITZARMENAK BESTE OE BATZUEKIN
OE-REN ERAKUNDE LAGUNTZAILEEN SAREA
FINANTZIAZIO ITURRI ANITZ
ERAKUNDEEN ETA OE-EN ARTEKO BALIABIDE MANKOMUNITATEA
OE-REN EZAGUTZA ETA ZABALKUNDE MAILA
KOMUNIKAZIO UNIBERTSALA ETA BANATUA, BALIABIDEAK SORTZEKO ITURRI GISA
ERAGILEAK GAITZEA BALIABIDEAK BILATZEKO
OE MARKA SORTZEA
LURRALDEAN GUNE SARE BAT IZATEA OE GARATZEKO
OE-N PARTE HARTZEKO PIZGARRIAK SORTZEA
ORDAINSARI BIDEZKOAK ETA EGOKIAK

5. fasea. Ekintzen jarraipena egitea eta haiek aztertzea

JARRAIPENA (3 esku-hartze maila)
<p>A.- Udalergi pilotuetan gida ezartzeari buruzko hiru jarraipen jardunaldi.</p> <ul style="list-style-type: none">- Gogoeta Estrategikorako taldearekin egingo dira.- Jarraipen hori sartuta dago Open Eskolak OGPn duen aurrekontuan.
<p>B.- 5 jarraipen saio udalergi/lurralde pilotu bakoitzean.</p> <ul style="list-style-type: none">- Gogoetarako Taldearen 3 jarraipen jardunaldietan lan egin ahal izateko eta gida hobetzeko, beharrezkoa da udalergi edo lurralde bakoitzeko informazioa, desbideratzeak, hobetu beharrekoak eta adierazleak izatea.- Horretarako, beharrezkoa da udalergi edo lurralde bakoitzarekin lan egitea.- Proiektu pilotu bakoitzarekin 2 orduko 5 saio egitea da proposamena, plangintzak eta ikastaroak iraun bitarteko 12 hilabeteetan. Lehenengo saioan udalerrian edo lurraldean egiten ari diren jarduerak planifikatu eta aztertuko lirateke. Saio bakoitzean desbideratzeak, hobetu beharrekoak eta adierazleak jasoko dira txosten batean, nahi ditugunak Open Eskolaren amaierako gida egiteko erreferentziatzat izateko.
<p>C.- Udalergi/lurralde bateko Open Eskolako idazkaritza teknikoa</p> <ul style="list-style-type: none">- Udalergi bakoitzak idazkaritza tekniko baten laguntza izan beharko du eskolako jarduerako kontzeptualizatzeko, sortzeko eta gauzatzeko.- Udalerraren edo lurraldearen arabera, idazkaritza teknikoa udaleko bertako teknikariek osatuko dute edo beharrezkoa izan daiteke kanpoko erakunde baten laguntza izatea.

6. fasea. Ondorioak eta hobetzeko gomendioak

Garatutako proiektu pilotuetatik, 2020ko abuztuan, hainbat ondorio eta gomendio atera beharko dira, OGPEren 4. konpromisoa betez behin betiko OE eredia osatu ahal izateko. Ondorio eta gomendio horiek, besteren artean, ahalbidetuko beharko dute honako hauek identifikatzea:

1. Zirriborro hau aplikatzeko egin beharreko hobekuntzak eta egokitzapenak.
2. OEren ezaugarri izango diren eta eredia osatuko duten elementuak.
3. Arrisku faktore nagusiak eta horiek arloka edo eskalaka nola kudeatu OE garatzean.
4. OE eredia zehaztu eta ikuskatzeko beharrezko estrategiak eta ekintzak.
5. Lurraldeen arteko transferentziak egin edo mankomunatzeko balizko mekanismo eta aukerak.
6. Alderdi komunak eta biztanle tarteen arabera bereziki kontuan hartu beharrekoak.
7. OGPren esparruan OEren etengabeko jarraipena egiteko agenteak eta mekanismoak.
8. Etorbizunean lan egiteko eta esku hartzeko balizko lerroak.
9. Beste konpromiso batzuekiko lotura.